

## ZORIRIK EZ

[Kontzentrazio-esparruetan urte eta erdiz bizitako nerabe baten kronika eta testigantza snetimentalismorik gabea]

Izenburua: Zoririk ez

Egilea: Imre Kertész

Itzulpena: Urtzi Urrutikoetxea

ELKAR

2003

Pentsatzen jarrita, eta gutxieneko zintzotasun batekin, gomendatuko al nioek liburu hau lagun bati? Bai. Baina –horra, hasieratik hasi naiz bainaka., ez liburuaren literatur balioarengatik, ene ustez ez baita hori, hain zuzen ere, eleberri honen alderik aberatsena. Markatuta uzten duten eleberria da, ordea, Zoririk ez. Hain egoera lazgarrien kontakizuna bera zirrargarria gertatzen da eta are zirrargarriagoa Imre Lertészen deskribapen zehatzei esker. Markatuta uzteaz gain, zer pentsatu asko ematen du Kerteszen eleberri honek. Lehenik eta behin, gizakion izaera bera da bere gordinean azaltzen zaiguna. “Homo homini lupus” ezaguna batetik, arrazakeriaren zentzugabetasuna bestetik, eta, horiekin batera, gizakion krudelkeria.

Bada, ordea ahalegin bat Kerteszen kontakizun honetan sentimentalismoari ihes egitekoa. Jakinaren gaineko ihes egitea, gainera. Kertszek berak horixe kritikatzeko baitio Spielbergi: (Shindlerren zerrenda): “Spielbergekin ez du ideiarik ere hura zer izan zen eta nahastu besterik ez du egiten”. Eta lortu ere lortzen duela esango nuke sentimentalismoan ez erortzea. Tarteka iradokitzen dizkigu, ordea, zenbait mezu eta goghoeta. Hamabos urteko gazte baten esperientzia eta ikuspegia, derigorrez bat-batean gizondu eta bere kabuz, inongo babesik gabe, aurrera egin behar duen mutikoarena. A ze bidetan barna, gainera: Auschwitz, Buchenwald eta Zeitzeko kontzentrazio-esparruetan barna.

Helburu bakarra izango du urte eta erdi infernuzko horietan: bizirik irautea. Eta hori besterik ez. Ia ez dago denborarik ere egoera kritikatzeko, egoerari buruzko aipamen eta iritzi kritikoak ematen aritzeko. Are gehiago dena, egoera erabat gogorak zertxobait leuntzen doazen heinean, presoak sumatzen edo nabaritzen hasten diren zoriontasun moduko bat, askatasun dosi bat ere aipatzen dizkigu Kertszek bere eleberrian. Alde horretatik, bizi egiten dugun kontaketa dugu, haren lekuan jartzen gara nahitaez, haren angustiak eta arinduak geureak balira bezala bizitzen ditugularik. Eta ez da lorpen makala.

Eleberriaren izenburuak berak jasotzen du ondoen protagonista gazteari, behin askatasuna lortzen duenean gelditzen zaion sentsazioa. Guztiz gogortu da urte eta erdi horretan eta zer sentimendu gelditu zaion galdetzen diotenean, argi eta garbi erantzuten du: gorrotoa.

Ez nuke, hortaz, zalantzarik behin baina horiek jarrita, liburua lagunei irakurtzeko gomendatzeko. Gutxieneko zintzotasunez jarduteko asmoa azaldu dut arestian, eta horrexegatik aipatuko nioke, derriorez, ondorengo hau ere, liburua

irakurtzeko gomendatuko niokeen edonori. Zoririk ez eleberriak zer pentsatua ematen badu, ez du zer pentsatu gutxiago ematen Santiago Alba Rico-ren “Imre Kertész, premio nobel al Sionismo” artikulua, [www.rebellion.org](http://www.rebellion.org) helbidean irakur daitekeenak. Labur beharrez esango dugu izugarrikeria bizi izan duen pertsona baten testigantza dela Zoririk ez eleberria. Baina hura izan al da gizateriak jasan duen izugarrikeria bakarra? Ez al dute izugarrikeria bera bizi gaur egun, besteak beste, palestinarrek eta irakiarrek? Horra Santiago Albaren kritikaren funtsa.

Nolanahi ere, eta eskuartean dugun eleberria itzuliz, irakaspenak ateratzeko liburua, inondik ere. Gure historian gertatutakoa gure den ver, geroa bestelakoa irudikatzeko gogoeta eta planteamenduak egiteko egundoko balioa duen kontakizun honek eta, batez ere, irakurri ondoan uzten digun markak. Kertészen beraren hitzetan esatearren: “Auschwitz eragin traumatikoez hausnartzen dudanean, paradoxikoki, gehiago ari naiz etorkizunaz hausnartzen iraganaz baino”.

Mikel Garmendia